

Euskal liburutegi digitala 3.000 bat titulurekin sortu berri da

BILBO. Euskal Liburutegi Digitala 3.000 titulu inguru eta 350.000 irudi baino gehiagorekin sortu berri da, eta urtea bukatu aurretik, 300.000 orri gehiago gehituko dira webgune honetara (www.liburuklik.euskadi.net). Egitasmo honen bidez, euskal bibliografia zaintzeaz gain, ikerlariak eta herritar guztiek ondare horretan sar-tzeko aukera izango dute ere bai.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak atzo aurkeztu zuen Euskal Liburutegi Digitala. Bere programaren ardatz estrategikoetako bat dela adierazita, honen helburu dira euskal bibliografia ondarea zain-tzea eta iraunaraztea, obra horiek hondatu ez daitezen. Aldi berean, edozein ikerlari edo euskal hizkun-tzan eta kulturaren interesa duen edozeini horietan sartzeko aukera ere emango da. Erreminta berria liburuklik du izena eta www.liburuklik.euskadi.net webgunetik sar daiteke.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak adierazi zuenez, aurtengorako aurrekontu-konpromisoa 690.000 eurokoa da (horietako 550.000 euro Eusko Jaurlaritzarenak eta gainontzekoa Espainiako Kultura Ministerioaren laguntza bereziak direla). Proiektuan ere parte hartuko dute hainbat euskal liburutegi-erakundek eta berebat zenbait akordio lortu dira Eusko Legebiltzarrarekin, Arabako Foru Aldundiarekin eta Antso Jakitunaren Fundazioarekin, besteak beste. Bestetik, Euskal Liburutegi Digitalaren eduki osoa Europeana bilduman ere zabalduko da. Bibliografia funtsa zabala denez, agiri bakar asko daudenez eta euskara euskal kultura igortzeko hizkuntza erabilia denez, 'gero eta ikusgarriago izango da Europako bilduma garrantzitsuetan'.